

FRANTZIAKO GOBERNUA. «Hurbileko administrazioaren azkartzeko» neurriak erabaki ditu

Batzuen poza eta besteen haserrea eragin dute Gobernuaren neurriek

Jean Espilondok dio Gobernuak hitza «bete» duela, eta ABk «Euskal Herriaz trufatu» dela

Eneko Bidegain | BAIONA

ESANAK

«Gobernuak bere hitza bete du», dio Jean Espilondo diputatuak. «Ipar Euskal Herriaz trufatzen da», aldiz, Jean Noel Etxeberri Txetx ABko bozeramaileak. Poza eta haserrea eragin dute Gobernuak «hurbileko administrazioaren azkartzeko» herenegun iragarri hiru neurriek.

Jean Espilondorentzat «erabaki adierazgarriak» dira «Euskal Herrian eta Aturrialdean». Suprefeturaren agiriak ez zuen aipatzen «Aturrialdea». «Aparteko neurri sorta horrek ezkerreko gobernu batek abiatu hiritar desmarta batean engaiatu diren guztiak saritzen ditu», diputatuaren ustez. «Estatuak herriarren borondateari jarraipena» ematea goraiatu zuen. «Hori da Errepublikak».

«Nahi genuen prefeturaordearen eskaerari erantzuten dio pixka bat», adierazi zuen Daniel Poulou Auzapezen Biltzarreko lehendakariak. Jean-Pierre Chevenementekin bildu zen ordezkariak kidea zen 2000ko martxoaren 9an. «Euskal Herriaren berezitasunak kontuan hartzen ditu. Oso herri dinamikoa da, eta departamendu bilaka daiteke».

«Aitzinatzeko, departamendua eskatzen jarraitu behar da»

Jean Aniozbehere departamenduaren aldeko hautetsien elkarreko lehendakari ohi eta Sarako



JEAN ESPILONDO (Diputatu sozialista)

«Aparteko neurri sorta horrek ezkerreko gobernu batek abiatu hiritar desmarta batean engaiatu diren guztiak saritzen ditu»



DANIEL POULOU (Auzapezen Biltzarra)

«Euskal Herriaren berezitasunak kontuan hartzen ditu. Oso herri dinamikoa da, eta departamendu bilaka daiteke»



JEAN ANIOZBEHERE (Sarako auzapeza)

«Ohartzen gara gure aldarrikapen batzuei erantzuten diela funtsezkoa baztertzeko, hala nola euskal departamenduaren sortzea»



JEAN-NOEL ETXEBERRI (Abertzaleen Batasuna)

«Dramatikoa da Gobernuak hauteskundeetako sino-minoekin erantzutea Euskal Herriaren eskaera oso serioei»

auzapezaren iduriko, estatuak «ohi bezala, hein batez baizik ez ditu kontuan hartzen» Euskal Herriko eskaerak. «Ohartzen gara gure aldarrikapen batzuei erantzuten diela funtsezkoa baztertzeko, hala nola euskal departamenduaren sortzea». Aniozbehere baikor agertu zen hala ere, «lortu den guziaz ekin-tzaren bidez lortu» delako «bakarrik». «Horrek erran nahi du aitzinatu nahi badugu departamenduaren eskatzen jarraitu

behar dela, urratsez urrats», gehitu zuen.

Jean Noel Etxeberri ABko bozeramailearen iritziz, neurri horiek «indigenei lasai daitezen ematen zaizkien opari txikiekin pareka daitezke». Hauteskunde aitzineko kanpainarekin lotu zituen. «Dramatikoa da Gobernuak hauteskundeetako sino-minoekin erantzutea Euskal Herriaren eskaera oso serioei». Lionel Jospini «hitzaren jatea» leporatu zion. 1981ean sozialis-

tek departamendua eta hizkuntzen estatutua hitzeman zituela oroitarazi zuen. «1995ean Jospinek hori berretsi zuen, baldin eta hautetsien gehiengoa alde agertzen bazen; orain hala da», zioen Etxeberri. «Alderdi Sozialistak garesti ordaindu beharko du, datozen legebiltzarre-rako hauteskundeetan bereziki», abisatu zuen.

«Egokiena bertako administrazioa da»

Batasunak, berriz, ohar batean azaldu zuenez, «Paristik, Bordele-tik eta Pauetik etorritik estatutaren zerbitzuan dauden ordezkari gehiago ekarriz ez dira arazoak konpontzen». Aitzitik, «Euskal Herriaren izatea onartuz, berezko instituzioa abian ezarri, bertako hautetsiei erabakietan doakien tokia emanez eta populazioaren eskaerei erantzunez» erdietsiko dela nabarmendu zuen. «Hurbileko administrazio egokiena, bertako administrazioa», gehitu zuen.

Batasunak bertze hiru neurri proposatu zituen. Batetik, «lurraldearen ordezkari politiko onartua izatea, berezko instituzioa eta herrialde horien interesak ongi defendituak izan daitezen». Bertzetik, «inguruko kolektibitate publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna». Hirugarrenik, «alor guztietan interbentzio publikoak finkatzeko gaitasuna» eskatu zuen Batasunak.

BATASUNA

Raxoi «mozorro demokratikoa» kendu duen faxistatzat jo du Batasunak

Erredakzioa | DONOSTIA

Mariano Raxoi Espainia-ko Barne ministroak atzo ere Batasuna legez kanpo jartzea izan zuen hizpide, besteak beste. Haren ustez, «Batasuna ETaren tresna dela argi dago, baina legez kanpo jartzea epaileen erabakia da». Gobernuaren lana epaileari frogak aurkeztea dela esan zuen, eta frogak biltzean legez kanpo jartzeko eskatuko dutela.

Batasunak, «mozorro demokratikoa» kendu duen faxistatzat jo zuen Raxoi. Talde horren kontrako «milagarren ohar zapaltzailea» dela azaldu zuen Raxoiaren adierazpenez. Baina Batasunaren eta «euskal kutsua» duen ororen aurkakoa dela esan zuen. Guztiaren atzean eraikuntza nazionala galaraztea dagoela adierazi zuen Batasunak.

EUSKAL PRESOK

Alcalan presoek kontrako erasoak gertatzen ari direla salatu dute Senideek

Erredakzioa | DONOSTIA

Alcala Mecoko kartzelako zenbait funtzionario euskal presoek aurkako erasoak bultzatzen ari direla jakinarazi zuen atzo Senideak-Gureak elkarteak. Funtzionarioek preso sozialak erabiltzen dituzte horretarako.

Urriaren 30ean Jon Duandikoetxea presoaren aurrean jarri zen preso sozial bat, *gora Espainia* gaztelaniaz zioen kartel batekin. Euskal presoak kartela kendu zionean besteak ukabilkada bat eman zion eta hortz bat apurtu. Atearen beste aldean zegoen Jurdan Martitegi preso la-guntzen saiatu zen.

Onoren bi presoak zigortu dituzte, bakartze ziegetan. Senideek salatu dute espetxe horretan lehen ere funtzionario batek horrelako erasoak bultzatu izan dituela.

GERRA ZIKINA. 1985ean kaleratutako berri batean Perret anaiak jo zituzten desagertzearen erantzule

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra* errefuxiatuaren desagertzea ikertzen duen instrukzio epaitegiak eginbide gehiago agindu berri ditu. Naparra 1980ko ekainean desagertu zen, Donibane Lohizunen (Lapurdi). Haren bahiketa eta hil-keta Batallon Vasco Español (BVA) hartu zuen bere gain, baina inoiz ez da gorpurik agertu.

Familiak 1999an kereila bat aurkeztu zuten Madrilgo Entzutegi Nazionalean, kasua preskribitu baino lehen ikertzea nahi zuelako. Kereila horretan esaten zen Naparrarena legez kanpoko atxiloketa eta hil-keta izan zela. Geroztik zenbait egin-

‘Naparra kasuko’ epaileak Perret anaia mertzenarioen taldera bideratu ditu ikerketak

bide judizial egin dira gaiaren inguruan.

Orain, Ismael Moreno bigarren instrukzio epaitegiko epaileak bide berri bat ireki du ikerketan, mertzenario talde batera bideratuta. Familiaren izenean akusazioa daraman abokatuak eskatuta onartu du epaileak eginbidea. 1985ean *Cambio 16* aldizkariak kaleratutako informazio bat da oinarria. Aldizkari horrek erreportaia bat kaleratu zuen gerra zikinaren inguruan, eta bertan, beste askoren arte-

an, Jose Miguel Etxeberriaren kasua aipatzen zen. Naparraren hilketaren ardura Perret anaiek zuzentzen zuten mertzenario taldeari egotzi zioten.

Aldizkariaren jatorrizko alea eskuratzea, erreportaia egin zuten bi kazetariak —Jose Diaz Herrera eta Rafael Cid— bilatzea eta bi kazetari horiei leku-gisa deklarazioa hartzea dira epaileak agindu dituen diligentsiak.

Gerra zikinari lotutako atentatu eta hil-keta gehienak mer-

tzenario talde jakinekin lotuta ageri dira, eta bi dira nagusiak, Jean Pierre Cheriden taldea eta Perret anaia.

ADN probak Frantzian

Horretaz gain Frantzian ADN probak egiteko asmoa azaldu du epaileak. Jakina denez, Naparraren senideen ADN Guardia Zibilaren datu base batean gordeta eta identifikatu gabe dauden zenbaitekin konparatu zuten duela hilabete batzuk. Emaizta negatiboa izan zen.

Orain Frantzian antzeko datu baserik dagoen aztertze-eko eskatu dio epaileak Guardia Zibilar, eta aurkituz gero Frantzian ere proba hori egiteko, bahiketa Iparraldean gertatu baitzen.